

Txostena
Informe

**Lurralde Historikoen Kontu
Orokorren azterketa konparatiboa**

**Análisis comparativo de las Cuentas
Generales de los Territorios
Históricos**

2005



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	7
I. FORU SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA	9
I.1 Kontsolidatutako sarreren aurrekontuaren likidazioa	9
I.1.1 Zerga bidezko sarrerak	11
I.1.2 Kapitalezko transferentziak eta arruntak.....	12
I.2 Gastuen Aurrekontuaren likidazioa.....	13
I.2.1 Langileria gastuak	15
I.2.2 Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak.....	17
I.2.3 Erakunde konpromisoak.....	18
I.2.4 Transferentzi eta diru-laguntza kapitalezkoak eta arruntak.....	19
I.2.5 Inbertsio errealak.....	21
I.2.6 Finantza aktiboak eta pasiboak.....	22
I.2.7 Iruzkina orokorra.....	23
I.3 Aurrekontu emaitza eta aurrekontuko saldoak	23
I.4 Diruzaintzako geldikina.....	25
II. FORU SEKTORE PUBLIKOA	26
II.1.1 Arabako LHren egoeraren balantzea.....	27
II.1.2 Bizkaiko LHren egoeraren balantzea	30
II.1.3 Gipuzkoako LHren egoeraren balantzea	33
II.1.4 Kontsolidatutako egoeraren balantzea.....	36
II.2.1 Arabako LHren galdu-irabazien kontua.....	41
II.2.2 Bizkaiko LHren galdu-irabazien kontua	42
II.2.3 Gipuzkoako LHren galdu-irabazien kontua	42
II.2.4 Galdu-irabazien kontu kontsolidatua	43



III. AURREKONTU, FISKALARITZA ETA EKONOMIA-FINANTZAZKO INDIZEAK..... 45

III.1 Aurrekontu sarreren indizeak	45
III.2 Aurrekontu gastuen indizeak	46
III.3 Aurrekontu-superabitaren indizeak	47
III.4 Indize fiskalak	48
III.5 EAËri egindako ekarpenaren indizea	48
III.6 Toki Erakundeen partaidetzaren indizea.....	50
III.7 Finantza-zorraren indizeak	52
III.8 Aurrezki indizeak	53

INTRODUCCIÓN..... 55

I. SECTOR PÚBLICO ADMINISTRATIVO FORAL 57

I.1 Liquidación del presupuesto de ingresos consolidado	57
I.1.1 Ingresos tributarios.....	59
I.1.2 Transferencias corrientes y de capital	60
I.2 Liquidación del presupuesto de gastos.....	61
I.2.1 Gastos de personal.....	63
I.2.2 Compra de bienes y servicios.....	65
I.2.3 Compromisos institucionales	66
I.2.4 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital	67
I.2.5 Inversiones reales	69
I.2.6 Activos y pasivos financieros.....	70
I.2.7 Comentario general	71
I.3 Resultado presupuestario y saldos presupuestarios	71
I.4 Remanente de Tesorería	73

II. SECTOR PÚBLICO FORAL 74

II.1.1 Balance de situación del TH de Álava.....	75
II.1.2 Balance de situación del TH de Bizkaia.....	78
II.1.3 Balance de situación del TH de Gipuzkoa.....	81
II.1.4 Balance de situación consolidado.....	84
II.2.1 Cuenta de pérdidas y ganancias del TH de Álava	89
II.2.2 Cuenta de pérdidas y ganancias del TH de Bizkaia	90
II.2.3 Cuenta de pérdidas y ganancias del TH de Gipuzkoa	90
II.2.4 Cuenta de Pérdidas y Ganancias consolidada.....	91



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. ÍNDICES PRESUPUESTARIOS, FISCALES Y ECONÓMICO/FINANCIEROS	93
III.1 Índices de ingresos presupuestarios	93
III.2 Índices de gastos presupuestarios	94
III.3 Índices de superávit presupuestario.....	95
III.4 Índices fiscales	96
III.5 Índice de aportación a la CAPV.....	96
III.6 Índice de participación de las Entidades Locales	98
III.7 Índices de endeudamiento financiero.....	100
III.8 Índices de ahorro	101

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 6a
Vitoria-Gasteiz, 6 de mayo de 2008





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Lanerako Programan erabakitakoari jarraiki, EAEren Lurralde Historiko bakoitzeko foru alor publikoa osatzen duten erakundeen aurrekontu eta ondare kontuak jasoko dituen informazio-agiri hau mamitu du.

Bertan azaltzen diren datuak Foru Erakunde bakoitzak aurkeztu dituen Kontu Orokorretatik eskuratu dira, jada Epaitegi honek fiskalizatu dituenak. Ez da, honenbestez, fiskalizazio txostena honakoa, baizik eta informazio-agiri bateratua, azterketa konparatiboa egitea bideratuko duena.

Txosten honen ondorioetarako, Lurralde Historiko bakoitzeko foru sektore publikoa honakootan zati-banatzen da:

- Sektore publiko administratiboa.
- Sektore publiko enpresariala.

Agiri honen edukia ondoko informazio-multzoetan egituratzen da:

- Sektore publiko administratiboa.
- Foru sektore publikoa.
- Aurrekontu, fiskalaritza eta ekonomia-finantzazko indizeak

I. FORU SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA

Lehenengo informazio-multzoa Lurralde Historiko bakoitzaren foru sektore publiko administratiboari dagokio, kontabilitate publikoaren araubideari meneratzen zaizkion erakundeez osatua dagoena; hona hemen zeintzuk diren:

- Arabako LHaren foru sektore publiko administratiboa:
 - Arabako Foru Aldundia
 - Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE) eta Gazteriaren Foru Erakundea (GFE) erakunde autonomo administratiboak.
- Bizkaiko LHaren foru sektore publiko administratiboa:
 - Bizkaiko Foru Aldundia
 - Bizkaiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eta Gazteriaren Foru Erakundea eta Lurralde Ikasketetarako Foru Erakundea erakunde autonomo administratiboak.
- Gipuzkoako LHaren foru sektore publiko administratiboa:
 - Gipuzkoako Foru Aldundia



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Uliazpi erakunde autonomo administratiboa

Informazio multzo honetako datuak Lurralde Historiko bakoitzaren foru sektore publiko administratiboa osatzen duten erakundeen aurrekontu likidazioei dagozkie eta kontsolidatuak daude.

II FORU SEKTORE PUBLIKOA

Bigarren informazio multzoa Lurralde Historiko bakoitzaren foru sektore publikoaren multzoari dagokio, hau da, bai sektore publiko administratiboari, bai enpresa sektore publikoari. Enpresa-sektore publikoa osatzen duten erakundeak kontabilitate pribatuaren araubideari meneratzen zaizkio.

Informazio multzo honetako datuak batetik, sektore publiko administratiboko erakundeen ondare kontuei dagozkie eta bestetik, enpresa sektore publikoaren ondare kontuei eta biak daude kontsolidatuak. Eta kontu hauek aldi berean euren artean kontsolidatu dira, Lurralde Historiko bakoitzaren foru sektore publikoaren ondare kontuen guztizko kontsolidatua eskuratzeko; kontu hauek egoeraren balantze eta galdu-irabazien kontuetan laburbiltzen dira.

III AURREKONTU, FISKALARITZA ETA EKONOMIA-FINANTZAZKO INDIZEAK

Hirugarren informazio multzo honetan hainbat indize erakusten dira, behin euren adiera zehaztu ondoren, aurrekontu, fiskalaritza eta ekonomia-finantza esparruei dagozkienak. Bigarren aldiz aztertzen duenez Epaitegiak informazio mota hau, lehenengoa 2003ko urteari zegokion, horien bilakaera konparatiboa aztertzei aukera abian jartzen da.

Txosten honetan jasotako datuak alderagarriak izan zitezen, Epaitegiak homologatu egin behar izan ditu. Amaitzeko, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Foru Aldundiei gomendatzen die euren antolakuntza-eskumenak kaltetu gabe, kontabilitate sistemen ezarpena eta urteko kontuen aurkezpena homologatzeari ekin behar diotela.



I. FORU SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA

Lurralde Historikoen foru sektore publiko administratiboa, Sarreran adierazi den legez, kontabilitate publikora meneratuak dauden foru jabetzako erakunde publikoen multzoa da.

Lurralde Historikoen Kontu Orokorrek, norik bere sektore publiko administratiboaz diharduela, batetik, osagai dituzten erakunde publikoen aurrekontu likidazioen berri ematen dute, eta bestetik euren ondare kontuen berri.

Foru sektore publiko administratiboari dagokion atal honetan, soil-soilik, aurrekontu likidazioaren berri ematen da. Bere ondare kontuei dagokien informazioa foru sektore publikoari dagokion atalean barne hartu da, hartara, enpresa sektore publikoari dagokion informazioarekin batera Lurralde Historiko bakoitzaren foru erakunde publikoen multzoaren informazio osoa eskuragarri izan dadin.

Lurralde Historikoen foru sektore publiko administratiboaren azterketa konparatiboa, kontsolidatutako aurrekontuko likidazio egoeren ondoko osagaien bitartez garatzen da:

- Sarreraren aurrekontuaren likidazioa
- Gastuen Aurrekontuaren likidazioa
- Aurrekontu emaitza eta aurrekontu saldoa
- Diruzaintzako geldikina

I.1 KONTOLIDATUTAKO SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Hona hemen Foru Lurralde bakoitzaren sektore publiko administratiboaren sarrera propioen –kontsolidatuak- aurrekontuaren likidazioa (sarrera arruntei erakunde konpromisoei dagozkien kopuruak murriztuz) eta bere egitura ehunekoetan:

2005 urtea Mila euro

Kontzeptua	__ARABA__		__BIZKAIA__		__GIPUZKOA__	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Zerga zuzenak	818.845		2.660.200		1.603.713	
Zeharkako zergak	1.023.691		3.091.800		1.977.315	
Bestelako zerga sarrerak	12.409		68.700		32.542	
Erakunde konpromisoak	(1.526.036)		(4.810.900)		(3.035.532)	
Berezko zerga sarrerak	328.909	79,6	1.009.800	75,3	578.038	83,5
Tasak eta bestelako sarrerak	22.886	5,5	18.700	1,4	14.623	2,1
Transferentzia arruntak	22.730	5,5	128.800	9,6	37.297	5,4
Ondare sarrerak	4.594	1,1	16.800	1,3	5.716	0,8
SARRERA ARRUNT PROPIOAK (1)	379.119	91,7	1.174.100	87,6	635.674	91,8
- Inbentsio errealeen besterentzea	1.468	0,4	8.400	0,6	2.724	0,4
Kapitalezko transferentziak	20.472	4,9	43.400	3,2	51.849	7,5
KAPITALEZKO SARRERAK (2)	21.940	5,3	51.800	3,8	54.573	7,9
SARRERA EZ FINANTZARIOAK (1 + 2)	401.059	97,0	1.225.900	91,4	690.247	99,7
Finantza aktiboak	417	0,1	1.000	0,1	1.921	0,3
Finantza pasiboak	12.000	2,9	114.000	8,5	-	-
FINANTZAKETA SARRERAK	12.417	3,0	115.000	8,6	1.921	0,3
SARRERA PROPIOAK GUZTIRA	413.476	100,0	1.340.900	100,0	692.168	100,0

Foru Aldundiek euren Kontu Orokorretan aurkezten dituzten sarreraren aurrekontu likidazio horiek ez dituzte irizpide homogeneousak erabiltzen zerga sarrerak kontabilizatzeko orduan. AFAk eta BFAk zorpetze irizpidea darabilten bitartean, zuzena dena, GFAk kutxa irizpidea darabil. Halaber, AFAk aitortutako zerga eskubide gordinak aurkezten dituen bitartean (kaudimengabeziak zuzkitu aurretik), BFAk eskubide garbiak aurkezten ditu.

Ondotik erakutsiko dugun taulak Foru Lurralde bakoitzeko sektore publiko administratiboaren sarreraren aurrekontu likidazio kontsolidatua jasotzen du, kapitulu handitan banatuta, euren formulazioetan berdindu ondoren Arabako Aldundiak erabili ohi dituen kontabilizazio irizpideei jarraiki.

2005 urtea Mila euro

KONTZEPTUA	__ARABA__		__BIZKAIA__		__GIPUZKOA__	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Sarrera arruntak	1.905.155		6.052.500		3.735.108	
Erakunde konpromisoak	(1.526.036)		(4.810.900)		(3.035.532)	
Sarrera arrunt propioak (1)	379.119	91,7	1.241.600	88,1	699.576	92,5
Kapitalezko sarrerak (2)	21.940	5,3	51.800	3,7	54.573	7,2
Sarrera ez finantzarioak (1 + 2)	401.059	97,0	1.293.400	91,8	754.149	99,7
Finantzaketa sarrerak	12.417	3,0	115.000	8,2	1.921	0,3
SARRERA PROPIOAK GUZTIRA	413.476	100,0	1.408.400	100,0	756.070	100,0



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Finantzarioak ez diren diru-sarrerek Gipuzkoako foru administrazio publikoan dute egitura pisu handiena, ekitaldian zorrik egin ez duelako; txikiena aldiz Bizkaian, ekitaldian egindako zor berria diru-sarrera guztien % 8,2 baita.
- Homogeneizatutako diru-sarreraren likidazioen koadrotik honako alderdi hauek garatu dira:

I.1.1 Zerga bidezko sarrerak

Foru Aldundien zerga eskubideak eta dagokien ponderazio erlatiboa (oinarria ehun) ondokoak dira:

2005 urtea							Mila euro
Kontzeptua	AFA		BFA		GFA		%
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Zerga zuzenak.....	818.845	15,9	2.687.500	52,2	1.641.343	31,9	100
Zeharkako zergak.....	1.023.691	16,7	3.110.900	50,8	1.987.510	32,5	100
Bestelako zerga sarrerak.....	12.409	8,3	89.800	60,5	46.279	31,2	100
Zergak guztira	1.854.945	16,2	5.888.200	51,6	3.675.132	32,2	100
Erakunde konpromisoak.....	(1.526.036)	16,3	(4.810.900)	51,3	(3.035.532)	32,4	100
ZERGA SARRERA PROPIOAK GUZTIRA	328.909	16,1	1.077.300	52,7	639.600	31,2	100

- BFAk zuzeneko zerga kontzeptuan erakusten duen sarrera gordinen ehunekoa (% 52,2) zerga sarrera guztien (% 51,6) gaineko ehuneko erlatiboa baino altuagoa da; ordea, ALHren eta GLHren ehuneko erlatiboak txikiagoak dira.
- BLHk zeharkako zerga kontzeptuan erakusten duen sarrera gordinen ehunekoa (% 50,8) zerga sarrera guztien (% 51,6) gaineko ehuneko erlatiboa baino txikiagoa da; ordea, ALHren eta GLHren ehuneko erlatiboak handiagoak dira.
- BFAk “bestelako zergak” kontzeptuan erakusten duen sarrera gordinen ehunekoa (% 60,5) zerga sarrera guztien (% 51,6) gaineko ehuneko erlatiboa baino altuagoa da; ordea, ALHren eta GLHren ehuneko erlatiboak txikiagoak dira.



I.1.2 Kapitalezko transferentziak eta arruntak

Lurralde Historiko bakoitzeko sektore publiko administratiboen transferentzia arruntei eta kapital-transferentziei dagozkien diru-sarrerak eta hauen ponderazio erlatiboa (oinarria ehun) jarraian azaltzen direnak dira:

2005 urtea	Mila euro						
	__ARABA__		__BIZKAIA__		__GIPUZKOA__		
KONTZEPTUA	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Europar Batasunarena.....	2.108	9,2	13.000	56,6	7.848	34,2	100
Estatuarena	2.654	50,3	1.500	28,5	1.117	21,2	100
EAErena.....	16.405	11,0	106.100	70,8	27.304	18,2	100
Toki Entitateena.....	1.503	16,8	6.400	71,7	1.022	11,5	100
Beste batzuenaren	60	3,2	1.800	96,5	6	0,3	100
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK GUZTIRA	22.730	12,0	128.800	68,2	37.297	19,8	100
Europar Batasunarena.....	2.659	18,5	4.900	34,0	6.827	47,5	100
Estatuarena	300	100,0	-	0,0	-	0,0	100
EAErena.....	15.178	20,4	38.000	51,1	21.194	28,5	100
Toki Entitateena.....	1.441	8,0	200	1,1	16.487	90,9	100
Beste batzuenaren	894	10,5	300	3,5	7.341	86,0	100
KAPITALEZKO TRANSFERENTZ. GUZTIRA	20.472	17,7	43.400	37,5	51.849	44,8	100
TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	43.203	14,2	172.200	56,5	89.146	29,3	100

- Estatuak Arabako Lurralde Historikoari egin dizkion transferentzia guztietatik (2.654 mila euro), 1.744 mila euro, halaber, Europako Gizarte Fondotik datoz, INDESarentzako laguntza gisa (titulartzat Foru Aldundia duen enplegu zentro berezia).
- EAEk egindako transferentzia arruntetatik, azpimarratzekoa da, “gizarteratzeari” dagozkionak, helburu zehatza dutenak, Arabarentzat diren guztietatik 15.425 mila euro direla, Bizkaiarentzat diren guztietatik 103.300 mila euro direla eta Gipuzkoarentzat diren guztietatik 21.499 mila euro direla.
- EAEtik datozen kapitalezko transferentzien kontzeptuen arabera, honakoa da:

Kontzeptua	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Plan mark., inbert. publikoaren finantza-laguntz.	13.088	31.400	18.190
Beste batzuk	2.090	6.600	3.004
TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	15.178	38.000	21.194

- 15.769 Toki-erakundeek egindako kapital-transferentziei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak izandako 16.487 mila euroko diru-sarreretatik, 15.769 mila euro Gipuzkoako



Ur Kontsortzioarekin eta Añarbeko eta Txingudiko Mankomunitateekin obra hidraulikoetako inbertsioak batera finantzatzeko sinatu ziren hitzarmenei dagozkie.

I.2 GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Foru Lurralde bakoitzeko gastu propioen aurrekontu finkatuaren likidazioa eta honen portzentajezko egitura ondokoa da:

Kontzeptua	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Langileen gastuak.....	105.739	28,6	186.600	15,6	91.872	14,8
Ondasun erosk. eta zerbitzuak.....	89.189	24,1	153.100	12,8	71.619	11,6
Finantza gastuak:.....	5.710	1,6	36.000	3,0	7.776	1,2
Transferent. eta diru-laguntza arruntak.....	1.585.965	429,1	5.216.400	435,0	3.208.351	517,6
Erakunde konpromisoak.....	(1.525.031)	(412,6)	(4.810.900)	(401,2)	(3.035.532)	(489,7)
GASTU ARRUNTAK (1)	261.572	70,8	781.200	65,2	344.086	55,5
Inbertsio errealak.....	56.509	15,3	229.400	19,1	206.494	33,3
Kapitalezko transferentziak.....	25.139	6,8	94.900	7,9	61.331	9,9
Erakunde konpromisoak.....	(1.005)	(0,3)	-	0,0	-	0,0
KAPITALEZKO GASTUAK (2)	80.643	21,8	324.300	27,0	267.825	43,2
SARRERA EZ FINANTZARIOAK (1 + 2)	342.215	92,6	1.105.500	92,2	611.911	98,7
Aktibo finantzarioak.....	21.539	5,8	36.600	3,1	3.285	0,5
Finantza pasiboak.....	5.894	1,6	57.000	4,7	4.623	0,8
FINANTZAKETA GASTUAK	27.433	7,4	93.600	7,8	7.908	1,3
GASTU PROPIOAK GUZTIRA	369.648	100,0	1.199.100	100,0	619.819	100,0

- Legediak Lurralde Historikoei aitortzen dizkien auto-antolamendu eskumenek bide ematen diete foru sektore publiko administratibo bat edukitzeaz gain –txostenaren atal honetako azterketaren xede dena-, enpresako foru sektore publiko bat eratzekoa. Bi sektoreen integrazioak, administraziokoak eta enpresakoak, eratzen du Lurralde Historiko bakoitzaren foru sektore publikoaren multzoa eta txosten honetako beste atal batean aztergai izango dugu, ondare kontuak abiaburu hartuta.

Foru Aldundiek euren eskumenak kudeatzeko izan duten auto-antolamendurako autonomiaren erabilera desberdin horrek ekarri du norbere enpresa sektore publikoaren luze-zabal eta dibertsifikazioa oso ezberdinak izatea, txosten honen sarrera atalean agerian utzi dugun legez.

Hori dela eta, txosten honen ondorioetarako, gastu aurrekontuen likidaziotik eratortzen diren datuen azterketa konparatiboek –sektore publiko administratiboari soilik dagozkionak eta ez foru sektore publikoaren multzoari-, aintzat izan behar dute



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

norainokoaren mugaketa hori, egintzen errealitateak agintzen duen mugaketa hori, alegia, aurrez adierazi duguna.

- Sektorre publiko administratiboaren Gastuen Aurrekontu Likidazioaren aurreko taularen datuek, alderdi esanguratsuenen modura, honako hau erakutsi dute:
 - ALHren administrazioko sektorre publikoa dela baliabide ehuneko gehien eman duena gastu arrunt propioetarako eta GLHren administrazioko sektorre publikoak gutxien.
 - GLHren administrazioko sektorre publikoa dela baliabide ehuneko gehien eman duena kapitalezko gastuetarako eta ALHren administrazioko sektorre publikoak gutxien.
 - BLHren administrazioko sektorre publikoa dela baliabide ehuneko gehien eman duena finantzaketa gastuetarako eta GLHren administrazioko sektorre publikoak gutxien.
- Lurralde Historiko bakoitzaren administrazio sektorre publikoaren gastu guztien ponderazio erlatiboa hiru Lurraldeen multzoko gastu guztien gainean, honako hau da:

	Mila euro	
	Zenbatekoa	%
Arabako LH.....	369.648	16,9
Bizkaiko LH.....	1.199.100	54,8
Gipuzkoako LH.....	619.819	28,3
GUZTIRA	2.188.567	100,0

- Gastu Aurrekontuaren Likidazioa erakusten duen aurreko taulatik, ondoren, honako ezaugarri hauek azpimarratu ditugu:



I.2.1 Langileria gastuak

Lurralde Historiko bakoitzaren administrazio sektore publikoaren langile gastuak eta dagokien ponderazio erlatiboa (oinarria ehun), ondokoak dira:

2005 urtea							Mila euro	
KONTZEPTUA	__ARABA__		__BIZKAIA__		__GIPUZKOA__		% %	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%		
Kategoriak								
Goi karguak	2.007	26,5	3.000	39,7	2.556	33,8	100	
Behin-behineko langileak	634	16,6	1.700	44,5	1.486	38,9	100	
Funtzionarioak	61.230	27,7	100.400	45,5	59.201	26,8	100	
Lan kontratuko langile finkoak	1.383	4,0	25.500	74,5	7.339	21,5	100	
Aldi-bater. lan kontr. langile	11.368	43,5	13.500	51,7	1.267	4,8	100	
Ordainketak.	76.622	26,2	144.100	49,3	71.849	24,5	100	
Gizarte Segurantza	20.508	27,5	37.100	49,8	16.899	22,7	100	
Elkarkidetza	1.284	27,7	2.000	43,1	1.356	29,2	100	
Klase Pasiboak	1.199	57,1	100	4,8	799	38,1	100	
Erretiro sariak	-	0,0	1.900	84,0	361	16,0	100	
Bestelako gizarte gastuak	570	22,1	1.400	54,3	608	23,6	100	
Gizarte gastuak	23.561	27,4	42.500	49,4	20.023	23,2	100	
INDESAko langileak	5.556	100,0	-	0,0	-	0,0	100	
GASTUAK GUZTIRA	105.739	27,5	186.600	48,6	91.872	23,9	100	

- “INDESAko langileei” dagozkien gastuak berezita daude, haien lan baldintzak ez datozelako bat Arabako Foru Aldundiko langileenekin, ezta GOFEko langileen lan baldintzekin ere. Berezko lan hitzarmena dute, GOFEk ordaintzen die eta titulartzat Foru Aldundia duen minusbaliatuentzako enplegu zentro berezi bat da.
- Foru administrazio publiko bakoitzeko langileen egitura, Foru Aldundiaren eta bere Administrazio Erakunde Autonomoen artean banatuta, honako hau da:

2005.12.31-N						Pertsona kopurua	
Plantilla	__ARABA__		__BIZKAIA__		__GIPUZKOA__		
	AFA	ERAK.AUT.	BFA	ERAK.AUT.	GFA	ERAK.AUT.	
Kategoriak							
Goi karguak	25	2	39	2	38	-	
Behin-behineko langileak	16	-	40	-	30	-	
Funtzionarioak	873	945	2.596	8	1.693	-	
Lan kontratuko langile finkoak	-	74	104	572	47	213	
Aldi baterako langileak	47	30	167	198	25	44	
PLANTILLA GUZTIRA	(*) 961	1.051	2.946	780	1.833	257	

(*) INDESAko 525 langileak barne hartu gabe



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Lurralde Historiko bakoitzaren administrazio sektore publikoaren langile gastuen ponderazio erlatiboa hiru Lurraldeen multzoko langile gastuen gainean, honako hau da:

	Mila euro	
	Zenbatekoa	%
Arabako LH.....	(*) 100.183	26,4
Bizkaiko LH	186.600	49,3
Gipuzkoako LH	91.872	24,3
GUZTIRA	378.655	100,0

(*) INDESAko langileen gastuak barne hartu gabe

- ALHren sektore publiko administratiboak langile gastuen kontzeptuan erakusten duen ehuneko erlatiboa (% 26,4) gastu guztien (% 16,9) gaineko ehuneko erlatiboa baino altuagoa da; ordea, BLHren eta GLHren sektore publiko administratiboari dagozkion ehuneko erlatiboak txikiagoak dira. Administrazio sektore publikoari soilik dagozkion langile gastu hauen ehunekoak aldatu egingo dira aurrerago foru sektore publikoaren multzoa aztertzen denean.



I.2.2 Ondasun erosketak eta zerbitzuak

Lurralde Historiko bakoitzaren administrazio sektore publikoaren erosketak eta zerbitzu gastuen xehekapena eta dagokien ponderazio erlatiboa (oinarria ehun), ondokoak dira:

KONTZEPTUA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		%
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Errentamenduak.....	803	12,8	3.109	49,7	2.347	37,5	100
Errepide konponketa eta zaintza	6.225	22,9	20.957	77,1	-	0,0	100
Gainerakoaren konponketak eta zaintza.....	4.309	24,6	9.037	51,5	4.192	23,9	100
Aseguru sariak	1.543	33,5	2.239	48,5	832	18,0	100
Bulegoko materiala	428	17,2	1.279	51,4	782	31,4	100
Argindarra, berogailua eta erregaia	2.257	23,0	4.723	48,1	2.842	28,9	100
Elikagaiak.....	2.524	46,5	1.989	36,6	918	16,9	100
Bestelako hornidurak.....	3.312	33,4	3.854	38,9	2.752	27,7	100
Komunikazioak	1.635	20,6	3.900	49,1	2.412	30,3	100
Katastroa mantentzea	1.341	42,2	1.835	57,8	-	0,0	100
Garraioak	1.899	55,7	627	18,4	883	25,9	100
Tributuak	276	20,8	651	49,1	400	30,1	100
Informatika zerbitzuak.....	4.812	16,0	19.487	64,9	5.725	19,1	100
Eraikinak garbitzea	1.874	21,6	4.084	47,1	2.709	31,3	100
Hondartzak garbitzea	-	0,0	1.177	61,8	729	38,2	100
Segurtasuna	509	8,3	4.175	68,2	1.436	23,5	100
Laguntza emateko zerbitzuak.....	21.915	30,2	35.968	49,6	14.621	20,2	100
Etxez etxeko arreta.....	14.814	100,0	-	0,0	-	0,0	100
Bestelako kanpo zerbitzuak	12.324	26,0	16.545	34,9	18.597	39,1	100
Agentzia betearazlea	894	100,0	-	0,0	-	0,0	100
Azterlan eta irizpenak.....	1.338	8,6	11.639	74,9	2.555	16,5	100
Publizitatea eta propaganda	1.934	14,8	5.312	40,6	5.827	44,6	100
Kirol ekipoen publizitatea	2.092	100,0	-	0,0	-	0,0	100
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketa.....	131	7,7	513	30,1	1.060	62,2	100
GASTUAK GUZTIRA	89.189	28,4	153.100	48,8	71.619	22,8	100

- Lurralde Historiko bakoitzaren administrazio sektore publikoa osatzen duten erakunde publikoek irizpide desberdinak erabiltzen dituzte zenbait eragiketaren erregistroan eta, gainera, zerbitzu bera batzuetan erakunde publikoetatik bertatik ematen da eta beste batzuetan kanpotik eskaintzen da. Ondorioz, goian erakutsitako koadrotik ateratako iruzkinak zehaztu egin behar dira zenbait kontzepturi dagokionez, zirkunstantzia horiek eragiten dituztenean. Horietatik, hauek dira adierazgarrienak:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren administrazio sektore publikoak errepideak konpondu eta mantentzeko lanen gastuak inbertsio gisa kontabilizatzen ditu (37.432 mila euro) eta, aldiz, ALHren administrazio sektore publikoak eta BHLren administrazio sektore publikoak gastu arrunt gisa kontabilizatzen dituzte,



- Jarduera batzuk kudeatzeko moduak ez datoz bat, esate baterako, “gizarte ongizaterako laguntzei” dagozkienak. Kasu horretan, ALHren administrazioko sektore publikoa kudeaketa zuzenaren bitartez aritzen da ia beti (gastuen 2. kapitulua) eta BLHren administrazioko sektore publikoa eta GLHren administrazioko sektore publikoa kudeaketa zuzenaren bitartez nahiz zeharkako kudeaketaren bitartez aritzen dira (gastuen 4. kapitulua),
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru sozietate publikoek erabilitako informatika zerbitzuak 2. kapituluan fakturatu eta erregistratu dira, baina Arabako Foru Aldundiaren foru sozietate publikoak erabilitakoak ez dira fakturatu eta Aldundiak sozietatea kapital-zabalkuntzen bitartez finantzatu du, galerak berdintzeko (8. kapitulua).
- ALHren sektore publiko administratiboak –arestian aipatutako inguruabarrak kaltetu gabe- ondasun erosketak eta zerbitzuen kontzeptuan erakusten duen ehuneko erlatiboa (% 28,4) gastu guztien (% 16,9) gaineko ehuneko erlatiboa baino altuagoa da; ordea, BLHren eta GLHren sektore publiko administratiboari dagozkion ehuneko erlatiboak txikiagoak dira.

I.2.3 Erakunde konpromisoak

Erakunde konpromisoen kontzeptuan Foru Aldundi bakoitzaren transferentziak eta oinarria ehun hartuta hauen ponderazio erlatiboa, jarraian azaltzen direnak dira:

2005 urtea							Mila euro	
KONTZEPTUA	_AFA_		_BFA_		_GFA_		% %	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%		
Kupoa ekitaldiaren kont. eta osag. Kupo. Legea.....	197.294	16,7	595.100	50,3	389.395	33,0	100	
Aurreko ekitaldiko kupoa likidatzea.....	3.709	16,7	11.200	50,4	7.307	32,9	100	
Gtu. sanit. Ekon. Itun. Batz. Misto. akordioa.....	(3.110)	100,0	-	-	-	-	100	
ESTATUARI KUPOA	197.893	16,5	606.300	50,5	396.702	33,0	100	
Ekarpen Orokorra.....	1.185.171	16,7	3.568.300	50,3	2.334.901	33,0	100	
Inbertsio Estrategikoet. Fondoak eta 3R.....	(5)	-	3.000	-	1.970	-	100	
Elkartasun fondoak.....	(20.701)	-	11.200	-	(43.667)	-	100	
EAE-RI EKARPENAK	1.164.465	16,5	3.582.500	50,9	2.293.204	32,6	100	
Udalek zergetan parte-hartzea.....	162.673	14,4	622.100	55,0	345.626	30,6	100	
UDALEI EKARPENAK	162.673	14,4	622.100	55,0	345.626	30,6	100	
ERAKUNDE KONPROMISOAK	1.525.031	16,3	4.810.900	51,3	3.035.532	32,4	100	

- 2005eko urteari dagokion Elkartasun fondoaren onuradunak Arabako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira. Honela, bada, horien zenbateko gordinak, hurrenez hurren, 24.430 eta 51.013 mila eurora igo dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- GALHren sektore publiko administratiboak erakunde konpromisoen kontzeptuan erakusten duen ehuneko erlatiboa (% 32,4) gastu guztien (% 28,3) gaineko ehuneko erlatiboa baino altuagoa da; ordea, ALHren eta BLHren sektore publiko administratiboari dagozkion ehuneko erlatiboak txikiagoak dira.

1.2.4 Transferentzi eta diru-laguntza kapitalezkoak eta arruntak

Foru Aldundi bakoitzaren transferentzia eta diru-laguntza guztien gastu osotik erakundeekiko konpromisoei dagozkienak deskontatu ondoren:

- Foru administrazio publiko bakoitzaren “berezko kudeaketari” dagozkion transferentzien eta diru-laguntzen gastu arruntak, eta hauen ponderazio erlatiboak (oinarria ehun), ondokoak dira:

2005 urtea							Mila euro
KONTZEPTUA	_ARABA_		_BIZKAIA_		_GIPUZKOA_		%
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Batzar Nagusiak	4.784	28,6	6.600	39,5	5.334	31,9	100
Foru Elkarteak	2	0,0	8.500	100,0	-	0,0	100
Toki Entitateak	8.347	11,7	33.700	47,1	29.530	41,2	100
Bizkaiko Garraio Partzuergoa,.....	-	0,0	27.100	100,0	-	0,00	100
Beste partzuergo batzuk.....	-	0,0	200	38,8	316	61,2	100
Fundazioak, Asozi. eta beste partai. batzuk	3.063	8,9	21.800	63,5	9.463	27,6	100
EAE eta Euskal Herriko Unibertsitatea	198	12,3	1.200	74,4	215	13,3	100
Beste batzuk	421	35,4	-	0,0	767	64,6	100
Sektore publikoa	16.815	10,4	99.100	61,4	45.625	28,2	100
Partaidetutako enpresak.....	-	0,0	800	100,0	-	0,0	100
Enpresa pribatuak	6.543	8,7	56.100	74,9	12.289	16,4	100
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	13.312	9,2	58.500	40,5	72.680	50,3	100
Familiak: Pentsioak eta beste	24.264	9,4	191.000	74,4	41.565	16,2	100
Beste batzuk	-	0,0	-	0,0	659	100,0	100
Sektore pribatua	44.119	9,3	306.400	64,1	127.193	26,6	100
TRANSF. ARRUNTAK "BEREZKO KUDEAKETA"	60.934	9,6	405.500	63,4	172.818	27,0	100

- BLHren sektore publiko administratiboak transferentzia eta diru-laguntzen kontzeptuan erakusten duen ehuneko erlatiboa (% 63,4) gastu guztien (% 54,8) gaineko ehuneko erlatiboa baino altuagoa da; ordea, ALHren eta GLHren sektore publiko administratiboari dagozkion ehuneko erlatiboak txikiagoak dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Sektore pribatuari egindako transferentzia arrunten xehetasunak honako hauek dira:

2005 urtea		Mila euro					
KONTZEPTUA	_ARABA_		_BIZKAIA_		_GIPUZKOA_		%
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Oinarrizk. errent.(lehen GGD) 10/2000 Legea.....	14.678	10,6	103.000	74,4	20.698	15,0	100
Kotizazio gabeko pentsioak.....	3.886	10,0	24.500	63,2	10.391	26,8	100
LISMI (Minusbaliatuak integratzeko Legea).....	229	11,5	1.100	55,4	657	33,1	100
Gizarte-ongizateko funtsa.....	264	8,8	1.700	56,3	1.053	34,9	100
Beste zerbitzu batzuk.....	1.121	5,1	14.500	66,6	6.157	28,3	100
Gizarte ongizateko laguntzak.....	1.832	1,5	59.380	48,0	62.397	50,5	100
Bidaiarien garraio publikorako laguntzak.....	3.802	6,3	56.400	93,4	205	0,3	100
Gizarte-ongizaterako laguntzak.....	4.203	18,4	14.123	61,7	4.558	19,9	100
Kirolari laguntzak.....	2.435	21,4	3.899	34,2	5.052	44,4	100
Beste laguntza batzuk.....	11.669	21,0	27.298	50,1	16.025	28,9	100
TRANSF. ARRUNTAK SEKTORE PRIBATUA	44.119	9,3	306.400	64,1	127.193	26,6	100

- Foru administrazio publiko bakoitzaren transferentziei dagozkien kapital gastuak, eta hauen ponderazio erlatiboak (oinarria ehun), ondokoak dira:

2005 urtea		Mila euro					
Kontzeptua	_ARABA_		_BIZKAIA_		_GIPUZKOA_		%
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Batzar Nagusiak.....	-	0,0	-	0,0	329	100,0	100
Foru Elkarteak.....	3.228	27,0	6.600	55,1	2.137	17,9	100
Toki Entitateak.....	13.530	21,4	32.600	51,5	17.140	27,1	100
Bizkaiko Garraio Partzuergoa,.....	-	0,0	15.000	100,0	-	0,0	100
Uren Partzuergoak.....	-	0,0	11.500	100,0	-	0,0	100
EAE eta Euskal Herriko Unibertsitatea.....	-	0,0	1.600	32,0	3.402	68,0	100
Fundazioak, Asozi. eta beste partai. batzuk.....	1.070	100,0	-	0,0	-	0,0	100
Beste batzuk.....	61	4,4	-	0,0	1.327	95,6	100
Sektore publikoa	17.889	16,3	67.300	61,5	24.335	22,2	100
Partaidetutako enpresak.....	-	0,0	2.400	100,0	-	0,0	100
Enpresa pribatuak.....	3.648	15,0	11.000	45,2	9.674	39,8	100
Irabazi asmorik gabeko famil. eta erak.....	2.597	5,9	14.200	32,2	27.322	61,9	100
Sektore pribatua	6.245	8,8	27.600	39,0	36.996	52,2	100
KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK	24.134	13,4	94.900	52,6	61.331	34,0	100

- GLHren sektore publiko administratiboak transferentzia eta diru-laguntzen kontzeptuan erakusten duen ehuneko erlatiboa (% 34) gastu guztien (% 28,3) gaineko ehuneko erlatiboa baino altuagoa da; ordea, ALHren eta BLHren sektore publiko administratiboari dagozkion ehuneko erlatiboak txikiagoak dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Bizkaiko Garraio Partzuergoari emandako laguntzak Bilboko metroko inbertsioak finantzatzeko dira.

I.2.5 Inbertsio errealak

Sektore publiko administratibo bakoitzaren inbertsio errealak, eta hauen ponderazio erlatiboak (oinarria ehun), ondokoak dira:

KONTZEPTUA	2005 urtea						Mila euro
	__ARABA__		__BIZKAIA__		__GIPUZKOA__		%
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	%
Lurrak eta ondasun naturalak	4.656	13,8	25.700	76,0	3.450	10,2	100
Baso eta hondartzetan hobekuntzak	-	0,0	5.400	100,0	-	0,0	100
Eraikinak	5.670	15,3	18.400	49,6	13.035	35,1	100
Errepideak, bideak eta basoetako pistak	24.482	10,1	96.400	39,6	122.507	50,3	100
Eraikuntza bereziak	10.203	9,8	52.400	50,4	41.293	39,8	100
Makineria, altzariak eta garraioko elementuak	3.488	28,6	3.500	28,7	5.212	42,7	100
Informa. eta softw. Informat. prozesatzeko ekip	1.582	4,7	20.800	61,6	11.371	33,7	100
Ikerketa, azterlanak eta proiektuak	2.300	26,7	3.400	39,4	2.918	33,9	100
Beste ibilgetu bat	4.128	29,0	3.400	23,9	6.708	47,1	100
INBERTSIO ERREALAK	56.509	11,5	229.400	46,6	206.494	41,9	100

- GFak, gorago aipatu denez, errepideak konpondu eta mantentzeko lanen 37.432 mila euroko gastuak inbertsio gisa kontabilizatzen ditu eta, aldiz, Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak gastu arruntzat hartzen dituzte.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren administrazioko sektore publikoaren errepideak konpondu eta mantentzeko lanen gastuak –arestian aipatu ditugunak- inbertsioen kapitulutik kentzen baditugu, datuak ALHren administrazioko sektore publikoko eta BLHren administrazioko sektore publikoko datuekin berdintzeko, Lurralde Historiko bakoitzaren administrazioko sektore publikoaren inbertsio gastuen ponderazio erlatiboa inbertsio gastuen guztizkoari dagokionez, honako hau da:

	Mila euro	
	Zenbatekoa	%
Arabako LH	56.509	12,4
Bizkaiko LH	229.400	50,4
Gipuzkoako LH	169.062	37,2
GUZTIRA	454.971	100,0



GLHren sektore publiko administratiboak inbertsio gastuen kontzeptuan erakusten duen ehuneko erlatiboa (% 37,2) gastu guztien (% 28,3) gaineko ehuneko erlatiboa baino altuagoa da; ordea, ALHren eta BLHren sektore publiko administratiboari dagozkion ehuneko erlatiboak txikiagoak dira.

- AFak, BFak eta GFak foru sozietate publikoen bitartez, batez ere Arabako Lanak, SA, Bizkaiko Bideak, SA, Interbiak, SA eta Bidegi, SA sozietateen bitartez 20.994, 13.762, 63.286 eta 33.195 mila euroko obrak egin zituzten, hurrenez hurren.

Homologatutako sektore publiko administratiboaren inbertsio gastuei aipatutako foru sozietate publikoen inbertsioak gehitzen badizkiegu, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako inbertsioak 77.503, 306.448 eta 202.257 mila eurokoak dira eta hauei dagozkien ponderazio erlatiboak (oinarria ehun) %13,2, % 52,3 eta % 34,5 hurrenez hurren.

I.2.6 Finantza aktiboak eta pasiboak

Lurralde Historiko bakoitzaren administrazio sektore publiko administratiboaren langile gastuak eta dagokien ponderazio erlatiboa (oinarria ehun), ondokoak dira:

2005 urtea	Mila euro						% %
	ARABA		_BIZKAIA_		_GIPUZKOA_		
KONTZEPTUA	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	%
Finantza aktiboak	21.539	35,1	36.600	59,6	3.285	5,3	100
Finantza pasiboak	5.894	8,7	57.000	84,4	4.623	6,9	100
FINANTZAKETA GASTUAK	27.433	21,3	93.600	72,6	7.908	6,1	100

- ALHren sektore publiko administratiboko finantza aktiboek, kapital zabalkuntza, langileriarri kredituak eta abarregatik eragiketa ohikoak barne hartzeaz gain, foru bonoen amortizazio fondoari ekarpenak eta euren foru elkarten galerak berdintzeko ekarpenak ere jasotzen dituzte.
- Hiru LHetako sektore publiko administratiboaren pasibo finantzarioak zorrak amortizatzerazuzendu dira.
- GLHren sektore publiko administratiboak finantza aktiboaren kontzeptuan erakusten duen ehuneko erlatiboa (% 5,3) gastu guztien (% 28,3) gaineko ehuneko erlatiboa baino txikiagoa da; ordea, ALHren eta BLHren sektore publiko administratiboari dagozkion ehuneko erlatiboak handiagoak dira.
- BLHren sektore publiko administratiboak finantza pasiboaren kontzeptuan erakusten duen ehuneko erlatiboa (% 84,4) gastu guztien (% 54,8) gaineko ehuneko erlatiboa baino handiagoa da; ordea, ALHren eta BLHren sektore publiko administratiboari dagozkion ehuneko erlatiboak txikiagoak dira.



I.2.7 Iruzkin orokorra

Lurralde Historikoen norik bere sektore publiko administratiboari dagokionez erakusten duten gastu aurrekontuaren likidazioen azterketa konparatibotik, laburpen orokor modura eta aipatutako iruzkinak kaltetu gabe, zera ondorioztatu da (ikus 1.2 taula):

- ALHren sektore publiko administratiboa da gastu arrunt propioen multzoak egiturazko pisu handien duen tokia, GLHren sektore administratibo publikoan izanik gutxien.
- GLHren sektore publiko administratiboa da kapitalezko gastuen multzoak egiturazko pisu handien duen tokia, ALHren sektore administratibo publikoan izanik gutxien.
- GLHren sektore publiko administratiboa da aurrekontuko eragiketa ez finantzarioen multzoak egiturazko pisu handien duen tokia, BLHren sektore administratibo publikoan izanik gutxien.
- BLHren sektore publiko administratiboa da gastu finantzaketa gastuen multzoak egiturazko pisu handien duen tokia, GLHren sektore administratibo publikoan izanik gutxien.

I.3 AURREKONTUAREN EMAITZA ETA AURREKONTU SALDOA

Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza da ekitaldiari dagozkion aurrekontu sarrera guztien – finantza pasiboetatik eratorritakoak kanpo- eta ekitaldi bereko gastu guztien –hemen ere, finantza pasiboetatik eratorritakoak kenduta- arteko aldea. Ekitaldiaren aurrekontu-superabita edo defizita islatzen du.

Halaber, aurrekontu saldoa da ekitaldiko aurrekontu emaitzari, aurrekontuko finantza pasiboen aldakuntza garbia gehituta eskuratzen den magnitudea.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Definizio hauei jarraiki, Lurralde Historiko bakoitzeko sektore administratibo publikoaren aurrekontu emaitza eta aurrekontu saldo kontsolidatuak honako hauek dira:

Kontzeptua	Mila euro						%
	ARABA		_BIZKAIA_		_GIPUZKOA_		
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	%
Sarrera arrunt propioak	379.119	16,3	1.241.600	53,5	699.576	30,2	100
Gastu arrunt propioak	261.572	18,4	781.200	54,8	381.518	26,8	100
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1)	117.547	13,1	460.400	51,4	318.058	35,5	100
kapitalezko sarrerak	21.940	17,1	51.800	40,4	54.573	42,5	100
kapitalezko gastuak.....	80.643	12,7	324.300	51,0	230.393	36,3	100
KAPITAL ERAGIKETEN SALDOA (2)	(58.703)	11,6	(272.500)	53,7	(175.820)	34,7	100
Eragiketa ez finantzarioak (1 + 2)	58.844	15,1	187.900	48,3	142.238	36,6	100
Finantza aktiboen aldaketa garbia	(21.122)	36,4	(35.600)	61,3	(1.364)	2,3	100
AURREKONTUAREN EMAITZA	37.722	11,4	152.300	46,0	140.874	42,6	100
Finantza pasiboen aldaketa garbia	6.106		57.000		(4.623)		
AURREKONTU SALDOA	43.828		209.300		136.251		

Oharra: Gipuzkoan barne hartu da batetik, sortutako eta erregistratu gabeko sarrerengatiko doikuntza (63.902 mila euro) eta, bestetik, 37.432 mila euroko inbertsio errealean kapitulua (kapital-gastuak) funtzionamendu-gastu modura (berezko gastu arruntak) egindako sailkapen berria. Bizkaian aitortutako eskubideei kaudimengabeziak zuzkitzeko egindako doiketa barne hartu da.

- GLHren sektore publiko administratiboa da saldoen ehuneko erlatibo handienak erakusten dituen ("erlatibotzat" hartuz Foru Aldundi bakoitzari dagokion ekarpen indizea, 6/2002 Legeak araututako banaketa horizontalaren ereduari jarraiki, ikus III.5 atala), bai eragiketa arruntei dagokienez, baita kapitalezkoei ere; halaber, ALHren sektore publiko administratiboak ditu txikienak.
- Hiru Lurralde Historikoen sektore administratiboek saldo positiboak aurkeztu dituzte aurrekontuzko eragiketa ez finantzarioen multzoarentzat.
- GLHren sektore publiko administratiboak erakutsi du aurrekontu emaitzen ehuneko erlatibo handiena.
- ALHren sektore publiko administratiboak eta BLHren sektore publiko administratiboak saldo positiboa aurkeztu dute finantza-pasiboen aldakuntza garbirako, hau da, zor berria amortizazioa baino handiagoa izan da; ordea, GFaren sektore publiko administratiboak saldo negatiboa aurkeztu du, hau da, zorraren amortizazioa zor berriak baino handiagoa izan dela, alegia.



I.4 DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Lurralde Historiko bakoitzaren administrazio sektore publikoaren kontsolidatutako diruzaintza geldikinarene xehekapena eta dagokion ponderazio erlatiboa (oinarria ehun), ondokoak da:

2005 urtea		Mila euro					
Kontzeptua	_ARABA_		BIZKAIA_		GIPUZKOA_		% %
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Fondo likidoak.....	186.954	22,3	421.500	50,3	229.254	27,4	100
Kobratzeko dauden eskubideak.....	65.957	14,3	219.800	47,7	(*) 175.397	38,0	100
Ordaintzeke dauden obligazioak.....	131.076	20,1	(**) 324.100	49,8	195.517	30,1	100
DIRUZAINZAZ GELDIKINA	121.835	18,8	317.200	48,9	209.134	32,3	100
Erakunde konpromisoetarako zuzkidurak ...	(28.366)	13,1	(155.000)	71,7	(*) (32.783)	15,2	100
Finantziario-desbideraketak.....	(27.232)	100,0	-	0,0	-	0,0	100
DIRUZAINZAZ GELDIKIN ERABILGARRIA	66.237	16,3	162.200	40,1	176.351	43,6	100

(*) Sortutako eta erregistratu gabeko sarreren doikuntza barne hartu da (58.442 mila euro), kaudimengabeziatarako zuzkiduratik garbi; baita erakunde konpromisoen zuzkidura ere.

(**) Zorpetutako eta erregistratu gabeko 7.000 mila euroko doiketa barne hartu da.

- GLHren sektore publiko administratiboak aurkeztu du diruzaintza geldikin erabilgarriaren ehuneko erlatibo handiena, eta aldiz, BLHren sektore publiko administratiboak txikiena.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. FORU SEKTORE PUBLIKOA

Lurralde Historikoen foru sektore publikoa bakoitzaren sektore publiko administratiboak eta enpresa-sektore publikoak osatzen dute.

Txosten honen I. atalean Lurralde Historikoen sektore publiko administratiboa aztertu da euren aurrekontu likidazioek aurkezten dituzten datuak abiaburu hartuta; ordea, txostenaren II. Atal honetan Lurralde Historikoen foru sektore publikoaren multzoa (administratiboa eta enpresakoa) izan dira aztergai, euren ondare kontuek erakusten dituzten datuetatik abiatuta.

Lurralde Historikoen foru sektore publiko administratiboaren azterketa konparatiboa, kantsolidatutako finantza egoeren ondoko osagaien bitartez garatzen da, integrazio globalaren metodoari jarraiki:

II.1 Egoeraren balantze kantsolidatua, zera besarkatzen duena:

- sektore publiko administratiboa
- sektore publiko enpresariala

II.2 Galdu-irabazien kontu kantsolidatua, zera besarkatzen duena:

- sektore publiko administratiboa
- sektore publiko enpresariala



II.1.1 Arabako LHren egoeraren balantzea

ALHren foru sektore publikoaren egoera balantze kontsolidatua, osagai dituen sektore publiko administratibo eta sektore publiko enpresarialean zati-banatua, honako hau da:

2005 urtea	Mila euro		
	Sektore Publiko. Administratiboa	Sektore Publiko. Enpresariala	Guztira Kontsolidatua
BALANTZEA			
Ibilgetu material eta ezmateriala	212.022	33.685	245.708
Ibilgetu finantzarioa	141.291	24.060	75.823
Kapital akziodunak, ordaindu gabe	-	9.320	-
Izakinak	-	48.294	48.294
Zordunak	58.933	25.216	63.845
Finantza kontuak	188.931	11.850	200.734
AKTIBOA GUZTIRA	601.177	152.425	634.404
Berezko fondoak.....	269.472	119.370	283.947
Erakunde konpromisoetarako zuzkidurak.....	(*)28.366	-	28.366
Hartzekodunak, epe luzera	146.015	4.269	(**) 149.327
Hartzekodunak, epe laburrera.....	157.324	28.786	172.764
PASIBOA GUZTIRA	601.177	152.425	634.404

(*) Erakunde konpromisoetarako zuzkiduran zordunen birsailkatzea egin da

(**) Honako hauen kopuruak barne hartu dira: "Kanpoko bazkideak", "Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak" eta "Arrisku eta gastuetarako zuzkidurak".

Aurreko taulatik ondoren finantza ibilgetuari dagokion aktiboaren atalaren edukia zehaztuko dugu, bai sektore publiko administratiboari, bai enpresa sektore publikoari dagokiona.

- Hona hemen sektore publiko administratiboari dagokiona:

2005 urtea	Mila euro	
	Zenbatekoa	%
Sektore publiko administratiboa.		
Foru enpresa publikoak	94.977	67,2
Zuzkidurak.....	(808)	(0,6)
Foru enpresa publikoak garbi (1)	94.169	66,6
Gutxiengo partaidetza duten beste enpresa batzuk	36.347	25,7
Zuzkidurak.....	(456)	(0,3)
Gutxiengo partaid. duten enpresak garbi (2)	35.891	25,4
Finantza inbertsioa kapital sozialean (1 + 2)	130.060	92,1
